

BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

2491

AGINDUA, 2015eko maiatzaren 28koa, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuarena, Bikain-Euskararen Kalitate Ziurtagiriaren ebaluazio-prozesua arautu, eta 2015ean kanpo-ebaluazioaren zerbitzua jaso nahi duten erakundeei izena emateko dei egiten diena.

Abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoan, Euskal Autonomia Erkidegoaren Autonomia Estatutuari buruzkoan, 6. artikuluan esaten denez, euskara, Euskal Herriaren berezko hizkuntza, hizkuntza ofiziala izango da Euskadin, gaztelania bezala, eta bertako biztanle guztiek dute bi hizkuntzok jakiteko eta erabiltzeko eskubidea; eta autonomia erkidegoko erakunde komunek, autonomia-erkidegoaren baitako aniztasun soziolinguistikoa kontuan izanda, bi hizkuntzok erabili ahal izatea bermatu beharko dute, ofizial izatea arautuz. Eta horrekin batera, beharrezko neurriak hartu eta baliabideak bideratuko dituzte, euskararen ezagutza ziurtatzeko.

Euskal Autonomia Erkidegoan euskararen normalizazioaren oinarritzko habe juridikoa Euskararen Erabilera Arauzkotzeko 10/1982 Oinarrizko Legea izan da. Lege horrek hizkuntza-politikako ekimenak garatzeko bidea zabaldu zuen, gizarteko eremu giltzarrietan euskararen ezagutza eta erabilera berreskuratzeko euskarari hain beharrezkoa zitzaien erakundeen babesa eskainiz. Oinarrizko Lege honen 26. artikulua araberak, Euskal Autonomia Erkidegoko agintek neurri egokiak hartuko dituzte eta beharrezko bitartekoak jarriko dituzte gizarte-bizitzako alor guztietan euskararen erabilera sustatzeko.

10/1982 Legea geroko beste mugarri garrantzitsu batzuk bideratu zituen oinarrizko araua izan zen, horien artean, Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia, 1999. urteko abenduaren 10ean Eusko Legebiltzarrak onetsitakoa. Plan honen helburu garrantzitsuena euskaraz bizi nahi dutenei euskaraz bizi ahal izateko aukera eskaintzeko hizkuntza-politikako neurriak zehaztea eta sustatea da. Azken batean, euskararen aldeko ekintzak indartzea da planaren xedea, Euskadin euskara erabiltzea guztiz normala izan dadin, bai eremu pertsonalean, bai gizarte-eremuan eta baita eremu ofizialean ere. Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiak ezarritako esparru estrategikoetako bat lan-arloa da.

Horiek horrela, eremu horretan aurrera eramane beharrezko jarduerak batu eta integratzeko, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak 2006. urtean LanHitz programa abiarazi zuen. Programa horretan jasotzen da Eusko Jaurlaritzaren konpromisoa enpresetako euskararen erabileraren neurria ebaluatzeko eta egiaztatze sistemak sortzeko, gaur egun enpresen munduan erabiltzen diren kudeaketa-parametroak oinarri hartuta. Hori guztia aurrera eramateko, proiektuaren ezagutza tekniko errepertorioa, kontuan izan zen Euskalitek, Bikaintasunerako Euskal Fundazioak, EFQM bikaintasunaren eredu europarra EAEn traxionatzen izan duen esperientzia, erreferentzialtasuna eta izaera berariazkoa (EFQMko Regional Partner Organisation), eta 2006an nahiz 2007an hitzarmen bidez burututako lanari esker, Bikain ebaluazio-prozesua osatzen duten alderdi tekniko eta operatibo guztiak zehaztu, landu eta proba-aldian jarri ziren, beren egokitasuna eta egingarritasuna egiaztatuz.

Aurrekoak horrela, Bikain-Euskararen Kalitate Ziurtagiria sortu zuen Kultura sailburuak, 2008ko martxoaren 5eko Aginduaren bidez. Horren bitartez, enpresen munduan eta esparru sozio-ekonomikoan euskararen erabilera arian-arian normalizatzeko ikuspegitik aurrera eramandako hizkuntza-kudeaketa ebaluatu eta egiaztatze sistema nola garatuko den zehatu zen; horren kudeaketarako organoak zehaztu ziren; egiaztapen-ziurtagiria eskuratzeko baldintzak finkatu ziren.

Horren harira, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren eta Euskaliten koordinaziopean, 2008ko urtean aurreneko aldiz hogeita hamar enpresa ebaluatu ziren Agindu horretan zehaztutako prozedurari jarraiki. 2009an berriz, 53/2009 Dekretua jarri zen indarrean, 2009ko martxoaren 3koa, Bikain-Hizkuntza Konpromisoaren Zigilua eta Euskararen Kalitate Ziurtagiria arautzen dituenak. Dekretu honek Indargabetzeko Xedapen baten bitartez indargabe utzi du 2008ko martxoaren 5eko Agindua, Bikain-Euskararen Kalitate Ziurtagiria sortzen zuena.

53/2009 Dekretuko 7.1. artikulua dioenez, Bikain-Euskararen Kalitate Ziurtagiria establezimendu edo enpresaren titularrak(ek) eskatu beharko du(te), ezarritako prozedurari jarraikiz. Prozedura hori hizkuntza-politikaren arloan eskuduna den sailak ezarriko du dagokion deialdi publikoaren bidez.

Aurrekoari jarraikiz, 20/2012 Dekretuak, abenduaren 15ekoa, Lehendakariarena, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioari sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituenak eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituenak, 10. artikuluan Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren egitekoen artean c) azpiatalean Hizkuntza-politika horietako bat izango dela zehazten du.

Hori horrela, honako hau

EBAZTEN DUT:

1. artikulua.– Deialdiaren helburua.

Agindu honen xedea Bikain-Euskararen Kalitate Ziurtagiriaren ebaluazio-prozesua arautzea da, eta Bikain-Euskararen Kalitate Ziurtagiria 2015ean eskuratzeko kanpo-ebaluazioaren zerbitzua eskatu nahi duten erakundeei dei egitea izena eman dezaten.

2. artikulua.– Nori zuzendua.

1.– Bikain-Euskararen Kalitate Ziurtagiria eskuratzeko kanpo-ebaluazioaren zerbitzu hau eskatu ahal izango dute entitate publiko eta pribatuak, negozio-unitateak eta entitate handietako lan-zentroak, baldin eta beren jarduera Euskal Autonomia Erkidegoan egiten badute.

2.– Deialdi honetatik at geratzen dira lantoki fisikorik ez duten erakundeak. Kanpo geratzen dira, halaber, bi lagun edo hortik gorako plantillarik ez duten pertsona juridiko nahiz fisikoak.

3.– Deialdi honetatik at geratzen dira, era berean, Bikain Euskararen Kalitate Ziurtagiria 2013an edota 2014an eskuratua duten erakundeak.

3. artikulua.– Deialdian parte hartu ahal izateko ezinbesteko baldintzak.

1.– Beharrezko lege-nortasunez horniturik egon eta, aldi berean, dagokion erroldan izen emanak izatea. Erakundearen lege-ordezkariek izendatuko du eskabidean, bigarren eranskinean hain zuzen ere, zeintzuk diren ebaluatzea eskatzen diren guneak (negozio-unitateak edota lan-zentroak badira, adibidez). Bigarren eranskin horretan izendatu ez den gunerik, ez da ebaluatuko.

2.– Ebaluazio-prozesu honetara ezin izango dira aurkeztu: diru-laguntzak edo laguntza publikoak eskuratzeko galarazten duen debekuren baten edo administrazio-zehapen edota zehapen penalen baten menpe dauden eskatzaileak, ez eta Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako 4/2005 Legea dela bide debeku horrekin zigortuak ere, beti ere zehapenean finkatutako epe-barrutian.

3.– Diru-laguntzaren entitate/pertsona eskatzaileak zerga-betebeharren eta Gizarte Segurantzaren ordainketak egunean izan behar ditu. Horretarako, kudeatzaileak automatikoki egiaztatuko

du eskatzaileari baimenik eskatu gabe, ordainketa horietan egunean dagoela behar bestetan, Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bateginak ezarritakoari jarraituz.

4.– Erakundearen plantillako kide batek edo batzuk, Bikain Ebaluatzaile Klubeko prestakuntza-modulua egingo du(te) (ikus 10. artikulua).

5.– Kasuan-kasuan eta beharrezko iritziz gero, deialdi honen organo kudeatzaileak bilera batera deitu ahal izango ditu erakunde eskatzaileak banaka, kanpo-ebaluazioaren perimetroa hitzartzeko. Hitzartzen den hori izango da ebaluatuko den perimetroa.

4. artikulua.– Kudeaketa.

Honako ebaluazio-prozesu honen kudeaketa Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren Hizkuntza Ikerketa eta Koordinaziorako Zuzendaritzari dagokio.

5. artikulua.– Aurkeztu beharreko agiriak.

1.– Eskatzaileek agindu honi lotutako eskaera-orria bete beharko dute, legezko ordezkariak sinatuta eta enpresaren zigiluarekin (1.A eranskina).

2.– Aurreko horrez gain, honako agiri hauek ere aurkeztu beharko ditu:

a) Entitateari buruzko dokumentazioa:

a.1.– Administrazio honetako Erregistroan dauden fundazioak, elkarteak edo kooperatibak badira, ofizioz konprobatuko du Hizkuntza Ikerketa eta Koordinaziorako Zuzendaritzak.

Administrazio honetako Erregistroan izen emanda ez badaude, honako agiri hauek: eratze-eskrituraren kopia, entitateko estatutuen kopia eta dagokion erregistro publikoan izen emanda dagoela egiaztatzen duen agiriaren kopia.

Erregistratzera beharturik ez dauden entitateen kasuan, sortzeko behar izan dituzten dokumentuak aurkeztu beharko dituzte.

a.2.– Entitate horren legezko ordezkariari dagokionez, bere NAren fotokopia eta lege-ahalmena duela egiaztatzen duen ziurtagiria.

a.3.– IFZren fotokopia.

a.4.– Diru-laguntzaren entitate/pertsona eskatzaileak zerga-betebeharren eta Gizarte Segurantzaren ordainketak egunean izan behar ditu. Horretarako, kudeatzaileak automatikoki egiaztatuko du eskatzaileari baimenik eskatu gabe, ordainketa horietan egunean dagoela behar bestetan, Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bateginak ezarritakoari jarraituz.

b) Artikulu honetako a.1, a.2 eta a.3 agirien ordezkari, 1.B eranskina (Dokumentazioaren ordezkari aitortpena) aurkeztu ahal izango da, baldin eta agiriok administrazio honetan aurkeztuak izan badira, eta indarrean jarraitzen badute.

c) Ebaluazio-motari, -guneari (edota negozio-unitateari nahiz lan-zentroari) eta harremanetarako izendatzen den solaskideari buruzko datuak (2. eranskina).

d) Halaber, erakunde horretan ahalmen exekutibo gorena duen karguak edo organoak izenpetutako agiria, kanpo-ebaluazioaren eskaria berretsi, erakunde horretako pertsonak jakitun jarri eta Bikaineko kudeatzaileek emango dizkieten jarraibideak betetzeko konpromisoa azaltzen duena (3. eranskina).

e) Beharrezkotzat jotzen denetan, Hizkuntza Ikerketa eta Koordinaziorako Zuzendaritzak entitate eskatzaileari behar beste informazio eta dokumentazio eskatu ahal izango dio, aurkeztutako eskaria egoki baloratzeko. Halaber, zuzendaritza honek eskumena izango du informazio osagarria eskuratzeko erakundeak euskara-planak egiteko dirulaguntzak jasotzearen zuzendaritza honi beroni aurkeztutako euskara-plan eta gainerako agiri osagarrietatik.

6. artikulua.– Eskabideak noiz, non eta nola aurkeztu.

1.– Agindua argitaratzen den egunetik biharamunetik hasita, hilabeteko epean aurkeztu ahal izango dira eskabideak.

2.– Eskabide-orria eta agiriak, Hizkuntza Politikarako sailburuordeari zuzenduko zaizkionak, modu eta leku horietan aurkeztu ahal izango dira:

a) Aurrez aurre aurkeztu nahi izanez gero, Zuzenean Zerbitzuko bulegoetan, EAeko erregistro laguntzaileetan (Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorren eta bere erakunde autonomiadunen erregistroen sorrera, antolaketa eta funtzionamenduari buruzko apirilaren 29ko 72/2008 Dekretuan jasotakoak) edo Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeak 38.4 artikuluan aurreikusitako organoen aurrean.

b) Posta ziurtatuz egin nahi izanez gero, honako helbide honetara bidali beharko dira eskabide-orria eta agiriak: Eusko Jaurlaritza, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza, Hizkuntza Ikerketa eta Koordinaziorako Zuzendaritza (Bikain Ziurtagiriaren Deialdia), Donostia kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz. Horrela egitekotan, eskabide-orria kartazal irekian aurkeztu beharko da posta-bulegoan, posta-funtzionarioak, ziurtapena egin aurretik, data eta zigilua jar diezazkion eskabide-orriari berari (1.A. eranskina).

7. artikulua.– Aurkeztutako eskabidean egindako akatsen zuzenketa.

Ikusten bada eskabidea onartzeko eskatzen den dokumentazioan zerbait falta dela edo forma-akatsak daudela, edota aurkeztu diren dokumentuetan akatsak daudela, hamar egun balioduneko epea emango zaio interesdunari akatsa zuzentzeko edo aurkeztu beharreko agiriak aurkezteko. Era berean, ohartarazi egingo zaio ezen, epe hori igaro eta zuzenketarik egin ez bada, eskabidean atzera egiten duela ulertuko dela, aurrez jakinaraziko zaion ebazpen baten bidez, edo dagokion izapidea egiteko eskubidea galduko duela.

8. artikulua.– Eskaeren ebazpena.

Agindu honen 4. artikulua zehazten duen organo kudeatzaileak eskatzaileek deialdian parte hartu ahal izateko ezinbesteko baldintzak betetzen dituztela eta aurkeztu beharreko dokumentazioa zuzen dagoela egiaztatu ondoren, Hizkuntza Ikerketa eta Koordinaziorako zuzendariak, ebazpen bidez, eskatzaileetako bakoitzari 2015eko kanpo-ebaluazioaren prozesuan parte hartzeko eskaera onartu den edo ez jakinaraziko dio. Izena emateko epea itxi eta handik 30 egun balioduneko epean ebazpenik jasoko ez balitz, administrazio-isiltasunak eskaeraren ukapena adierazten duela ulertuko da.

9. artikulua.– Ebazpenaren aldaketa.

Ebaluatutako izango diren erakundeak aukeratzeko garaian kontuan izandako edozein baldintza aldatu egiten bada, erakunde horrek ebaluazioa jasotzeko eskubidea galdu dezake.

10. artikulua.– Kanpo-ebaluazioaren zerbitzua jasoko duten erakundeen betebeharrak.

1.– Ebaluatua izateko aukeratzen diren erakundeek honako betebeharrak izango dituzte:

a) Enpresako plantillako pertsona bat solaskide izendatuko dute, Bikain organo kudeatzailearekiko harremana bidera dezan prozesu osoan. Ahal dela, pertsona horrek Bikaineko ebaluatzaile izateko prestakuntza-modulua jasoko du, eta Bikain Ebaluatzaileen Klubeko kide izango da.

b) Erakunde eskatzailearen tamainaren arabera plantillako pertsona bat edo batzuk, Bikain, Ebaluatzaileen Klubeko kide izateko izendatuko ditu erakundeak.

- Erakunde eskatzailea ≤ 300 langilekoa bada: gutxienez kide 1.
- Erakunde eskatzailea 301-699 langile artekoa bada: gutxienez 2 kide.
- Erakunde eskatzailea 700-1.499 langile artekoa bada: gutxienez 3 kide.
- Erakunde eskatzailea ≥ 1.500 langiletik gorakoa bada: gutxienez 4 kide.
- Ebaluazioak partzialak badira, guneka alegia, eta eskabideak bereziak izan badira, gune bakoitzetik gutxienez pertsona batek joan beharko du ikastarora, eta aurreko puntuotan finkatu diren proportzioak errespetatuko dira.

Pertsona horiek Bikainen organo kudeatzaileak aurten antolatuko duen prestakuntza-modulura joan beharko dute nahitaez. Halaber, beste entitate bat ebaluatzen parte hartuko dute aurten, baldin eta kudeatzaileek halaxe eskatzen badiete. Profesional hauek analisisian, erredakzioan nahiz ofimatika erabiltzen ohituak izango dira, ahal dela. Pertsona horiek gainerako ebaluatzaileentzat finkatuko diren baldintza berberak bete beharko dituzte. Izen-ematea Bikainen webgunearen bitartez egingo da: <https://www.euskalit.net/bikain/eus/euskeraz.php>

c) Onarpen-ebazpena jaso eta gero, erakundeon solaskideak bertaratu egingo dira organo kudeatzaileak deituko dituen bilerara, prozesuaren, dokumentazioaren, eta beste hainbat jakingarriren berri jasotzeko.

d) Aurretostena osatzea kudeatzaileek eskuratuko dioten ereduaren arabera. Agiri horren bitartez erakundearen hizkuntza-egoera objektiboaren berri jasoko da, ebaluazio-prozesuarekin hasi aurretik.

e) Kanpo-ebaluazioaren kudeatzaileek zerbitzu honek iraun bitartean eska diezaioketen informazioa nahiz baliabideak eskuratzea, ebaluazio-prozesua egoki burutu dadin. Eskakizun horiek ez betetzeak kanpo-ebaluazioaren prozesua etetea ekar lezake.

2.– Kanpo-ebaluazioaren kudeatzaileek zehaztu egingo dituzte ebaluatzeko aukeratuak diren erakundeekin nahiz ebaluatzaileekin erabiliko diren komunikazio- eta koordinazio-euskarriak.

11. artikulua.– Bikain-Euskararen Kalitate Ziurtagiria eskuratzeko ebaluatu beharreko gaiak.

Bikain-Euskararen Kalitate Ziurtagiria eskuratzeko ebaluatuko diren gaiak edo edukiak, 53/2009 Dekretuak, Bikain-Hizkuntza Konpromisoaren Zigilua eta Euskararen Kalitate Ziurtagiria arautzen dituenak, 4. artikuluan jasotakoak dira, baita dekretu horren lehen eranskinean aipatutakoak ere.

12. artikulua.– Bikain-Euskararen Kalitate Ziurtagiriaren mailak.

Bikain-Euskararen Kalitate Ziurtagiriaren mailak 53/2009 Dekretuak 5. artikuluan jasotakoak dira.

13. artikulua.– Bikain-Euskararen Kalitate Ziurtagiria eskuratzeko kanpo-ebaluazioaren prozesua.

1.– Eusko Jaurlaritzak doako ebaluazio-zerbitzua eskainiko die deialdi honen bidez ebaluatutako izango diren erakundeei.

2.– Kanpo ebaluazioaren prozesuan hiru izango dira parte hartuko duten aldeak: ebaluatutako den erakundea, talde ebaluatzailea eta prozesuaren kudeatzaileak. Prozesuaren fase nagusiak honako hauek izango dira:

– Bikain, Ebaluatzaile Klubeko kideentzat antolatuko diren prestakuntza-moduluak egitea. Klub honetako kideek 53/2009 Dekretuak 8. artikuluan zehaztutako baldintzak beteko dituzte.

– Etorkizun hurbilean Bikain ebaluazioa administrazio eta sektore publikora zabalduko denez, nahi duten administrazio eta enpresa publikoek ebaluatzaile izateko egokitzat hartzen dituzten langileen izenak emateko aukera izango dute, langile horiek behar duten prestakuntza doan jaso dezaten. Horretarako, administrazio eta enpresa publikoetako langileen izenak emateko epea irailaren 11n bukatuko da.

– Ebaluatutako izateko aukeratzen diren erakundeei Aurre-txostena prestatzea, kudeatzaileek zuzenean nahiz <http://www.euskalit.net/bikain/> webgunean eskuratu dioten ereduari jarraiki.

– Talde ebaluatzaileen eraketa. Erakunde bakoitzari egokitu zaion talde ebaluatzailea komunikatu zaio eta bisita-egunak (bat, bi edo gehiago) hitzartuko dira.

– Ebaluazio-bisita bera burutzea.

– Ebaluazio-txostena idaztea, talde ebaluatzailearen eskutik.

– Ebaluazio-txostenaren bidalketa erakundeei.

– Ebaluazio osteko bilera egitea (hautazkoa).

– Ziurtagirien banaketa.

3.– Kanpo ebaluazioaren prozesuaren kudeatzaileek aipatu fase nagusi horien gaineko informazio osagarria unean-unean helaraziko diete alde guztiei, prozesua egoki burutu dadin.

14. artikulua.– Bikain-Euskararen Kalitate Ziurtagiriaren marka eta erabilera.

53/2009 Dekretuaren 9. artikulua finkatutakoaren arabera izango da.

15. artikulua.– Egiaztatutako Bikain ziurtagiri-mailak aitortzeko ebazpena eta erakundeen zerrenda argitaratzea.

13. artikuluan zehaztu den ebaluazio-prozesua amaitu eta gero, egindako ebaluazio-txostenak eta erakundeei lortutako emaitzak organo kudeatzaileari eskuratu dizkiote talde ebaluatzaileek, eta horren ostean, Hizkuntza Ikerketa eta Koordinaziorako zuzendariak ebazpen-proposamena lutzatuko dio Hizkuntza Politikarako sailburuordeari ebaluatutako erakundeei egiaztatutako ziurtagiri-mailak aitortzeko, eta horren ebazpena har dezan. Ebaluazio partzialen kasuan, organo kudeatzaileak toki-zehaztutako horiek jaso ahal izango ditu eratorzen diren agirietan. Horren ostean, Hizkuntza Politikarako sailburuordeak ebazpen bidez, erakunde eskatzaile bakoitzari 2015eko kanpo-ebaluazioan aitortutako ziurtagiri-maila jakinaraziko dio. Azkenik, iragarki bat argitaratuko da EHAAn Bikain-Euskararen Kalitate Ziurtagiria 2015ean eskuratu duten erakundeen zerrenda eta egiaztatu duten mailaren berri emateko, eta horrek bere ondorioak sor ditzan. Informazio hori ere Bikain web orrian (<http://www.euskalit.net/bikain/>) emango da.

XEDAPEN GEHIGARRIA

Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoarekin eta Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa Sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legearekin bat etorriz, deialdi honen tramitazioan jasotako datu pertsonalak, parte-hartzaileek erabiltzea eta argitaratzea baimenduko dituztenak, fitxategi batean jasoko dira. Fitxategi honen helburua deialdi honetako kanpo-ebaluazioak eta deialdi honekin zer ikusia duten beste edozein prozedura edo espediente administratiboa kudeatzea izango da, eta baita deialdi honetara aurkezen diren erakundeei deialdiaren garapenari buruz informatzea ere. Fitxategi honen arduraduna Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saileko Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren Hizkuntza Ikerketa eta Koordinaziorako Zuzendaritza da. Zuzendaritza honek prozesuan elkarlanean dihardu kontratatutako erakunde batekin; hori horrela, fitxategia eskuratuko zaio hari, hor azaltzen diren datuak balia ditzan ebaluazio-prozesuko euskarriak elikatzeko. Ondorioz, ebaluazioa eskatu eta onartuak izan diren erakundeek baimena ematen dute organo kudeatzaileak fitxategia laga diezaion kontratatutako erakundeari Lege horretan adierazitako sarbide, zuzenketa, ezabatze eta aurkatze eskubideak erabiltzeko Kultura Saileko Zerbitzu Zuzendaritzara jo beharko da, helbide honetara: Donostia kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz.

Deialdi honetan parte hartzen duten pertsonak baimena ematen diote Administrazioari honako honetarako: emandako datuak erkatzeko, eta aurkeztutako agiriak benetakoak direla egiaztatzeko (Administrazio honen esku egon, edo beste administrazio publiko batzuen esku egon); betiere, egiaztatzeko ezen betetzen direla laguntzen onuradun izateko eskatutako baldintzak.

AZKEN XEDAPENETATIK LEHENENGOA

Administrazio-bidea amaitzen duen agindu honen aurka, interesdunak aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkeztu ahal izango dio Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuari, hilabeteko epean, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik hasita. Bestela, zuzen-zuzenean administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango du Euskadiko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazio Auzietarako Salan, bi hilabeteko epean, honako agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik hasita.

AZKEN XEDAPENETATIK BIGARRENA

Agindu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera izango du eragina.

Vitoria-Gasteiz, 2015eko maiatzaren 28a.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburua,
CRISTINA URIARTE TOLEDO.

1.A ERANSKINA

2015 BIKAIN DEIALDIA	ESKABIDE-ORRIA
---------------------------------	-----------------------

1	DATU OROKORRAK, ENTITATE ESKATZAILEARI BURUZKOAK	
Erakundearen izena:		IFZ:
Helbidea (kalea, zk., posta-kodea, herria, lurraldea):		
Web-gunearen helbidea:		
Legezko ordezkariaren izen-abizenak (bi abizen):		NA zk.a:
Telefono finkoa:	Eskuko telefonoa:	
Zuzeneko helbide elektronikoa:		

2	ADOSTASUN-ADIERAZPENA
<p>Goian adierazitako entitatearen legezko ordezkari naizen aldetik, eskabide honetan emandako argibide eta datuak egiazkoak direla adierazten dut. Orobat, deialdi honetan eta kanpo-ebaluaziorako ezarri diren baldintzak beteko direla agintzen dut, horiek ez betetzeak kanpo-ebaluazioaren zerbitzua etetea ekar dezakeela jakitun. Halaber, zin egiten dut Agindu honetako 3.2. artikuluan aurreikusitako kausetan murgildu gabe nagoela.</p> <p>Hortaz, nire erakundeak Bikain Ebaluazio-zerbitzua eskatzeko baldintzak betetzen dituela, eta zerbitzu honen oinarrien jakitun izan eta guztiz onartzen ditudala adierazten dut.</p> <p>Legezko ordezkariaren sinadura eta enpresaren zigilua</p>	

ESKATZAILEAK AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

1.– 1.A. eranskin hau behar bezala beteta.

Horiekin batera hauek ere aurkeztu beharko dira (5.artikulua):

a) Entitateari buruzko dokumentazioa:

a.1.– Administrazio honetako Erregistroan dauden fundazioak, elkarteak edo kooperatibak badira, ofizioz konprobatuko du Hizkuntza Ikerketa eta Koordinaziorako Zuzendaritzak. Gainerako kasuetan honako agiri hauek: eratze-eskrituraren kopia, entitateko estatutuen kopia eta dagokion erregistro publikoan izen emanda dagoela egiaztatzen duen agiriaren kopia. Erregistratzera beharturik ez dauden entitateen kasuan, sortzeko behar izan dituzten dokumentuak aurkeztu beharko dituzte.

a.2.– Entitatearen legezko ordezkariari dagokionez, bere NAren fotokopia eta lege-ahalmena duela egiaztatzen duen ziurtagiria.

a.3.– IFZren fotokopia.

a.4.– Diru-laguntzaren entitate/pertsona eskatzaileak zerga-betebeharren eta Gizarte Segurantzaren ordainketak egunean izan behar ditu. Horretarako, kudeatzaileak automatikoki egiaztatuko du eskatzaileari baimenik eskatu gabe, ordainketa horietan egunean dagoela behar bestetan, Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bateginak ezarritakoari jarraituz.

Aurreko a.1, a.2 eta a.3 agiriaren ordezkari, 1.B Eranskina (Dokumentazioaren ordezkari aitortpena) aurkeztu ahal izango da.

b) Ebaluazio-guneari eta harremanetarako izendatzen den solaskideari buruzko datuak (2. eranskina).

c) Erakunde horretan ahalmen exekutibo gorena duen karguak edo organoak izenpetutako agiria, kanpo-ebaluazioaren eskaria berretsi, erakunde horretako pertsonak jakitun jarri eta Idazkaritza Teknikotik emango zaizkion jarraibideak betetzeko konpromisoa azaltzen duena (3. eranskina).

OHARRA:

Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoarekin eta Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa Sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legearekin bat etorritik, deialdi honen tramitazioan jasotako datu pertsonalak, parte-hartzaileek erabiltzea eta argitaratzea baimenduko dituztenak, fitxategi batean jasoko dira. Fitxategi honen helburua deialdi honetako kanpo-ebaluazioak eta deialdi honekin zer ikusia duten beste edozein prozedura edo espediente administratiboa kudeatzea izango da, eta baita deialdi honetara aurkezten diren erakundeei deialdiaren garapenari buruz informatzea ere. Fitxategi honen arduraduna Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saileko Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren Hizkuntza Ikerketa eta Koordinaziorako Zuzendaritza da. Zuzendaritza honek prozesuan elkarlanean dihardu kontratatutako erakunde batekin; hori horrela, fitxategia eskuratuko zaio hari, hor azaltzen diren datuak balia ditzan ebaluazio-prozesuko euskarriak elikatzeke. Ondorioz, ebaluazioa eskatu eta onartuak izan diren erakundeek baimena ematen dute organo kudeatzaileak fitxategia laga diezaion kontratatutako erakundeari Lege horretan adierazitako sarbide, zuzenketa, ezabatze eta aurkatze eskubideak erabiltzeko Kultura Saileko Zerbitzu Zuzendaritzara jo beharko da, helbide honetara: Donostia kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz.

Deialdi honetan parte hartzen duten pertsonen baimena ematen diote Administrazioari honako honetarako: emandako datuak erkatzeke, eta aurkeztutako agiriak benetakoak direla egiaztatzeke (Administrazio honen esku egon, edo beste administrazio publiko batzuen esku egon); betiere, egiaztatzeke ezen betetzen direla laguntzen onuradun izateko eskatutako baldintzak

1.B ERANSKINA

2015 BIKAIN DEIALDIA	DOKUMENTAZIOAREN ORDEZKO AITORPENA (Noiz bete behar da eranskin hau? Eskatzen zaizun dokumentazio orokorra lehenago ere aurkeztua bada administrazio honetan, eta indarrean jarraitzen badu).
---------------------------------------	---

ESKATZAILEA	
Entitatearen izena:	IFZ:
Legezko ordezkariaren izen-abizenak:	NA zk.a:

AZALPENA
<p>Markatu dagoeneko aurkeztutako eta indarrean jarraitzen duten agiriak:</p> <p><input type="checkbox"/> Eratze eskritura.</p> <p><input type="checkbox"/> Entitatearen estatutuak.</p> <p><input type="checkbox"/> Entitatea dagozkion erregistro publikoetan inskribatuta dagoela egiaztatzen duen ziurtagiria.</p> <p><input type="checkbox"/> Entitate pribatuaren legezko ordezkariaren NANaren fotokopia.</p> <p><input type="checkbox"/> Legezko ordezkariak lege ahalmena duela egiaztatzen duen ziurtagiria.</p> <p><input type="checkbox"/> IFZren kopia.</p>
Zehaztu agiriok non eta noiz aurkeztu diren:
Saila eta Zuzendaritza:
Deialdiaren izena eta urtea:

ADOSTASUNA		
Lekua eta data	Zigilua	Legezko ordezkariaren sinadura

OHARRA:

Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeak bere 35. f) artikuluan agindutakoari jarraituz, I.A. eranskineko I. ataleko 1., 2. eta 3. puntuetan aipatzen den dokumentaziotik agirietakoren bat edo gehiago Administrazio honetan lehenago ere aurkeztua izan bada eta indarrean jarraitzen badu(te), eskatzaileak ez du nahitaez berriro aurkeztu behar izango. Nahikoa du delako dokumentu horrek indarrean jarraitzen duela eta zein egun, organo edo bulegotan aurkeztu duen Hizkuntza Ikerketa eta Koordinaziorako Zuzendaritzari adieraztea.

2. ERANSKINA

2015 BIKAIN DEIALDIA	EBALUAZIO-GUNEARI ETA HARREMANETARAKO SOLASKIDEARI BURUZKO DATUAK	
1	EBALUATZEA ESKATZEN DEN ERAKUNDEAREN EDO ERAKUNDE-ATALAREN GAINEKO ZEHAZTAPENAK	
Adierazi: erakundea oso-osorik ebaluatzea eskatzen da? Edo partzialki?		
Ebaluatzea eskatzen den erakundearen (edo negozio-unitatearen, lan-zentroaren ...) izena:		
Oharra: hemen idazten den izena izango da, ziurtagirian jasoko dena, berau lortuz gero.		
Helbidea (kalea, zk., posta-kodea, udalerrria, lurraldea):		
Oharra: hemen adierazitako egoitza hau(ek) ebaluatuko d(ir)a bakar-bakarrik.		
Bikain, kanpo-ebaluazioa eskatzeko arrazoia(k) zehaztu:		
• Kontratazio-prozesuetan parte hartzeko	<input type="checkbox"/>	
• Diru-laguntzetan parte hartzeko	<input type="checkbox"/>	
• Orain arte egindako lana eta egoera ebaluatu nahi ditugulako	<input type="checkbox"/>	
• Bikain proiektuaren bidez, gurean euskara ere kudeatzen hasteko	<input type="checkbox"/>	
• Besterik	Zehaztu zein:	
Sektore ekonomikoa:		
Jarduera, produktu eta zerbitzuen gaineko azalpena:		
Enpresaren jarduerak emakida administratibo batekin loturarik badu, adierazi hemen zein administrazioarekin, zein zerbitzu ematen den, iraunaldia, administrazioaren zein baliabide erabiltzen den, etab.		
Ebaluatzea nahi den gunearen langile-kopurua:	Euskal hiztunen gutxi gora beherako ehunekoa:	
Euskara kudeatzeko ekimen planifikaturik ba al da?	Ekimen planifikatu hori enpresa bere kabuz ari al da gauzatzen, edo kanpo-aholkularitza kontratatuta? Baiezkotan, zein enpresarekin?	
2	EBALUAZIO-PROZESURAKO IZENDATZEN DEN ENPRESA-SOLASKIDEARI BURUZKO DATUAK	
Izendatzen den enpresa-solaskidearen izen-abizenak (bi abizen):	NA zk.a:	
Lanpostua edo kargua:	Zuzeneko helbide elektronikoa:	
Eskuko telefonoa:	Zuzeneko telefono finkoa:	

3. ERANSKINA

2015 BIKAIN DEIALDIA	BIKAIN KANPO-EBALUAZIOA BERARIAZ ESKATZEKO ESKABIDEAREN EREDUA
---------------------------------	---

Nik (ordezkariaren izen-abizenak),,
entitateko.....(kargua adierazi) kargua
izaki, eta erakundeko zuzendaritzako edota aginte exekutibo gorena duen organoko kide naizen aldetik, honako
hau adierazten dut:

- Bikain Kanpo Ebaluazioa eskatzeko erabakia, ahalmen exekutibo gorena du(t)en organoek edo karguek berariaz hartua izan dela, edota haiek jakitun eta ados direlarik.
- Hori horrela, gure erakundea kanpo-ebaluazioa egiteko aukeratua izanez gero, dagozkion komunikazio-eta koordinazio-ekintzak egingo direla hemen, gure enpresako pertsonak jakitun egon daitezen bisita-egunetan.
- Oro har, Erreferentzia Gidan finkatu diren alderdiekin jakitun eta ados garela, eta Idazkaritza Teknikotik gure solaskideari emango zaizkion jarraibideak betetzeko konpromisoa hartzen dugula, kanpo-ebaluazioaren prozesuak iraun bitartean, hartara egokia izan dadin denontzat.

Aginte exekutibo gorena duen organoa (eta kargua) eta haren izen-abizenak:

Lekua, data eta sinadura